



ERABAKIA / ACUERDO

ERAKUNDEA / ORGANO	
Udalbatzak / El Pleno de la Corporación	
NOIZ / FECHA 2015/10/27an	Ohiko batzarrean / En sesión ordinaria

bestek beste, honako akordioa(k) hartu z(it)uen, beti ere akta onartzerakoan sor litezkeen aldaketen baitan:

adoptó, entre otros, a reserva de los términos que resulten de la aprobación del acta correspondiente, el/los siguiente/s acuerdo/s:

7. Proposamena: "Errenteria Kiroletako Udal Patronatua" erakunde autonomo lokala desagiteko akordioa berrestea eta udalaren egituraren sartzea.

Aztertu da patronatuko presidenteak aurkeztutako "Errenteria Kiroletako Udal Patronatua" toki erakunde autonomoa desagiteko justifikazioko memoria.

Aztertu dira patronatuko kudeatzailearen txostenak.

Aztertu da kontu-hartzailearen txostena.

Aztertu da idazkari nagusiaren txostena.

Errenteriako Kiroletako Udal Patronatuak 2015eko urriaren 14an **aho batez** erabaki du Errenteriako Udalbatzari **eskatzea**, Lehendakaritza batzordeak irizpena eman ondoren, **erabaki hau berresteko**.

Lehendakaritza batzordeak aldeko irizpena eman zion 2015eko urriaren 21ean.

Lehendakaritzako ordezkariak proposamena egin du.

7. Propuesta: Ratificación del acuerdo de disolución del organismo autónomo local "Patronato Municipal de Deportes Errenteria-Rentería" e integración en la estructura del Ayuntamiento.

Vista la Memoria justificativa de la disolución del Organismo Autónomo Local "Patronato Municipal de Deportes Errenteria-Rentería" presentada por el Presidente del mismo obrante en el expediente.

Vistos los informes emitidos por el Gerente del PMD.

Visto el informe emitido por la Inteventora municipal.

Visto el informe emitido por la Secretaria General.

La Junta Rectora del Patronato Municipal de Deportes de Errenteria en fecha 14 de octubre de 2015 acuerda **por unanimidad, solicitar** al Pleno de la Corporación de Errenteria, previo dictamen de la Comisión Informativa de Presidencia, **que ratifique la adopción del presente acuerdo**.

Visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Presidencia de fecha 21 de octubre de 2015.

A propuesta de la Delegada de Presidencia.



Udalbatzak, 11 aldeko botoren gehiengoarekin (EHBILDU, Errenteriako IrabaziZ) eta 9 abstentziorekin (PSE-EE(PSOE), EAJ/PNV),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (EHBILDU, Errenteriako IrabaziZ) y 9 abstenciones (PSE-EE(PSOE), EAJ/PNV),

ERABAKI DU

Erabaki hau berrestea:

Lehenengo: Onestea «Errenteria Kiroletako Udal Patronatua» Erakunde Autonomo Lokala desegin dadin eta haren Estatutuak, zeinen Testu Bategina 1992ko apirilaren 23ko GAO n argitaratu ziren, indargabetu daitezzen; hartara, Errenteriako kirol zerbitzua Errenteriako Udalak bere gain hartuko du eta berak eskainiko du, espezializatutako antolamendurik ez duen zuzeneko kudeaketa modalitatearen bitartez.

Bigarren: Kiroletako batzordea sortzea, 2015eko ekainaren 18ko erabakiaren bidez sortutako batzorde iraunkorrei gehitzeko. Batzorde hori gainerako batzordeen xedapen berek arautuko dute. Halaber, espedientea izapidetzea Kiroletako Aholku Kontseilua eta hori arautzeko erregelamendua sortzeko.

Hirugarrena: Erakunde autonomoa desegiteko eta udal egiturari erabat sartzeko xedeetarako data gisa ezartzea 2016ko urtarrilak 1 edo, bestela, 2016ko udal aurrekontua indarrean sartzean. Ondorioz 2016ko ekitaldira begira, egoera berria kontuan har dadila, aurrekontuei dagokienez, Udalak kirol zerbitzua era zuzenean kudeatuko baitu.

Erakunde autonomoaren zuzendaritza batzordeak edo pareko organoak jardunekoak izango dira erakundearen eskubideak eta betebeharrak guztiz likidatu arte.

Laugarrena: Udaleko plantillan txertatzea Errenteriako Kiroletako Udal Patronatuko langileak,

ACUERDA

Ratificar la adopción del presente acuerdo:

Primero: Aprobar la disolución del Organismo Autónomo Local «Patronato Municipal de Deportes de Errenteria-Renteria» y la derogación de sus Estatutos, cuyo Texto Refundido se publicó en el BOG de 23 de abril de 1992, de modo que el servicio de deportes de Errenteria será asumido y prestado por el Ayuntamiento de Errenteria en la modalidad de gestión directa sin organización especializada.

Segundo: Crear la Comisión informativa de deportes, la cual se añadirá a la relación de Comisiones informativas de carácter permanente creadas mediante acuerdo plenario de 18 de junio de 2015. Regirán para dicha comisión las mismas disposiciones aplicables para el resto de Comisiones. Tramitar a su vez el expediente correspondiente para la creación del Consejo Asesor de Deportes y su reglamento regulador.

Tercero: Establecer como fecha de efectos de la disolución del organismo autónomo y de su plena integración a la estructura municipal el 1 de enero de 2016 o, en su caso, la entrada en vigor del presupuesto municipal de 2016. Consecuentemente que se tenga en cuenta la nueva situación en el presupuesto con vistas al ejercicio 2016 puesto que el ayuntamiento gestionará directamente el servicio de deportes.

La Junta Rectora u Órganos equivalentes del Organismo Autónomo seguirán en funciones hasta la completa liquidación de los derechos y obligaciones del mismo.

Cuarto: Integrar en la plantilla municipal al personal del Patronato Municipal de Deportes de Errenteria,



guztiak ere karrerako funtzionarioak, Kirolak azpisailari atxikita, Kultura, Hezkuntza, Gazteria, Agiritegia, Argitalpenak eta Liburutegia Sailaren baitan. Errenteriako Udalak guztiz subrogatuko ditu Patronatuak estatutuetako araubidean langileen inguruan zituen eskubide eta betebeharrak, erakundea desegiteko erabaki honek ez baitu horien gaineko aldaketarik eragiten.

Bosgarrena: Errenteriako Udalaren aurrekontuko plantillan sartzea erakunde autonomoa desegiten denean indarrean dagoen bere aurrekontuko plantillan ageri diren hiru plazak —funtzionarioei gordetakoak dira— eta horiei dagozkien aurrekontuko zuzkidurak, “Kudeatzailea” izendapena “goi-mailako teknikaria” izendapenarekin ordezkatuta eta “kirol dinamizatzailea” “teknikari laguntzailea” rekin ordezkatuta; hirugarren plaza, administrariarena, bere horretan mantenduko da, eta hiru plazen sailkapenak ere bere horretan mantenduko dira.

Seigarrena: Errenteriako Udalaren LZn sartzea, Kirolak azpisailari atxikita, Kiroletako Patronatuaren LZko hiru lanpostu hauek (2014ko urtarrilaren 28ko osoko bilkurako erabakiaren bidez onartu zen LZ), izendapenak eta funtzioak aldatuta:

- Kiroletako arduraduna, erakundea desegiten denean patronatuko kudeatzailearen postuak dituen baldintza eta eskakizunekin.
- Kirol-dinamizatzailea, erakundea desegiten denean postu horrek dituen baldintza eta eskakizunekin.
- Administraria, erakundea desegiten denean postu horrek dituen baldintza eta eskakizunekin.

Zazpigarrena: Erabakitzea Udalak bere gain hartuko dituela erakunde autonomoaren ondasun eta

todos ellos funcionarios de carrera, adscribiéndolo a la Subárea de Deportes, dentro del Area de Cultura, Educación, Juventud, Archivo, Publicaciones y Biblioteca, con total subrogación por parte del Ayuntamiento de Errenteria, en los derechos y obligaciones de su régimen estatutario que tuviere el citado Patronato respecto de dicho personal, sin que este acuerdo de disolución implique, en ningún caso, una modificación de los mismos.

Quinto: Integrar en la plantilla presupuestaria del Ayuntamiento de Errenteria, las tres plazas y dotaciones presupuestarias correspondientes, reservadas a personal funcionario que figuran en la plantilla presupuestaria del PMD vigente a la fecha de disolución del citado organismo autónomo, cambiando la denominación de la de “Gerente” por la de “Técnico Superior” y la de “Dinamizador Deportivo” por la de “Técnico auxiliar”, manteniendo la denominación de la tercera plaza de Administrativo y la clasificación en las tres plazas.

Sexto: Incorporar a la RPT del Ayuntamiento de Errenteria, adscribiéndolos a la Subárea de Deportes, los tres puestos de trabajo de la RPT del Patronato de Deportes aprobada mediante acuerdo plenario de 28 de enero de 2014 con las siguientes denominaciones y con las correspondientes adaptaciones en sus funciones:

- Responsable de Deportes, con los requisitos y condiciones del puesto de Gerente del PMD vigente a la fecha de disolución del mismo.
- Dinamizador deportivo, con los requisitos y condiciones del mismo puesto del PMD vigente a la fecha de disolución del mismo.
- Administrativo, con los requisitos y condiciones del mismo puesto del PMD vigente a la fecha de disolución del mismo.

Séptimo: Acordar la sucesión con carácter universal del Ayuntamiento respecto al organismo autónomo en



eskubide guztiak, bai eta betebeharrak ere, erakundea desegiteko erabakia indarrean sartzen denetik aurrera.

Errenteriako Udala subrogatu egingo da Erakunde Autonomoaren eta hirugarrenen artean indarrean dauden kontratuetatik eratorritako eskubide eta betebeharretan.

Errenteriako Udalak bere gain hartuko ditu erakunde publiko edo pribatuekin sinatutako hitzarmenen ondoriozko eskubide eta betebeharrak guztiak, bai eta beste erakunde publiko batzuek diruz lagundutako proiektuen ingurukoak ere.

Zortzigarrena: Errenteriako Udala eta desegindako erakunde autonomia kontabilitatean bateratuko dira, ondorio hauekin:

- Deseginda geratuko da Udalak erakunde autonomoari atxiki edo lagatako ondasunen egoera hori eta desegite horren ondoriozko kontabilitateko idazpenak egingo dira; Udalak bere gain hartuko ditu erakunde autonomoaren jabetzako ondasun guztiak eta Udalaren ondasun eta eskubideen inbentarioan txertatuko ditu.

- Kontaketa-akta 2015eko abenduaren 31ko edo erakunde autonomia desegiten den eguneko erreferentziarekin formalizatu aurretik, erakunde autonomoak finantza- eta kutxa-erakundeetan dituen kontu-korrenteetako saldoak Udalari transferituko zaizkio eta, ondoren, kontu guztiak itxiko dira. Halaber, era berean jardungo da erakunde horren aldeko abalekin eta berak jarritakoekin.

- Aurrekontuko zordunen eta hartzekodunen kontuak, ordaintzeko eta kobratzeko badaude, hala likidatzen den ekitaldiari nahiz aurrekoei dagokienez, Udalaren aurrekontuan kobratzeko eta ordaintzeko dauden

todos sus bienes y derechos, así como en sus obligaciones, desde la fecha de efectividad del acuerdo relativo a su disolución.

El Ayuntamiento de Errenteria se subrogará en los derechos y obligaciones derivados de los contratos vigentes entre el Organismo Autónomo y terceros.

El Ayuntamiento de Errenteria asumirá todos derechos y obligaciones derivados de Convenios suscritos con entidades públicas o privadas, así como los relacionados con proyectos subvencionados por otras entidades públicas.

Octavo: Se producirá la consolidación contable entre el Ayuntamiento de Errenteria y el Organismo Autónomo extinguido, produciendo los siguientes efectos:

- Queda extinguida la adscripción o cesión de bienes que el Ayuntamiento hubiere realizado a favor de dicho Organismo Autónomo, realizando los asientos contables consecuencia de dicha extinción, llevándose a cabo la asunción por el Ayuntamiento de todos aquellos bienes de propiedad del Organismo Autónomo, y efectuándose su incorporación al Inventario de Bienes y Derechos del Ayuntamiento.

- Previa formalización del Acta de Arqueo, referida al día 31 de diciembre de 2015 o aquel en que se produzca la disolución efectiva del Organismo Autónomo, los saldos en las cuentas corrientes existentes en las distintas entidades financieras y de caja del Organismo Autónomo, se transferirán al Ayuntamiento, cancelándose las cuentas financieras del mismo. Se deberán contabilizar del mismo modo los avales depositados en favor de dicho Organismo, así como los avales entregados por éste.

- Las cuentas de deudores y acreedores presupuestarios que estén pendientes de cobro y pendientes de pago, tanto del ejercicio que se liquida como de ejercicios anteriores, se integrarán en las



aurrekontu itxietako kontuetan txertatuko dira.

- Aurrekontukoak ez diren zordunen eta hartzekodunen saldoak Udalaren kontabilitatean txertatuko dira.

- Udalaren eta erakundearen arteko kreditu eta zordunketak bateratzeagatik desegingo dira, pertsona bera izango baita hartzekoduna eta zorduna; kontabilitatean egoki diren idazpenak egingo dira.

- Desegindako erakunde autonomoaren aurrekontua likidatzearen ondoriozko diruzaintzako gerakinari dagokionez, Udalak hartu beharko ditu egoki diren neurriak. Halaber, kreditu inkorporagarrien gerakinen saldoak zehaztuko dira.

- Oro har, erakunde autonomoaren kontabilitatea Udalarenean txertatuko da 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin edo, egoki bada, erakunde autonomoa desegiten den egunetik aurrerakoekin.

Bederatzigarrena: Udalean integratutako erakunde horren dokumentazioa Udal Artxibo Nagusiaren eskuetan utziko da, Artxiboak jaso ahal duenean, aldez aurretik identifikatuta, balioetsita, etiketatuta eta, hala balitz kasua, garbiketa edo expurgoa eginda.

Hamargarrena: Orain arte Errenteriako Kiroletako Udal Patronatuan deklaraturako datu-fitxategien titularitatea Errenteriako Udalari subrogatzen zaiola ulertuko da, datu horien titularrek datuak sartu, zuzendu, ezabatu eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal ditzaten Errenteriako Udalaren aurrean, eta dagokion jakinarazpena egingo zaio DBEA Datuak Babesteko Euskal Agentziari.

cuentas de pendientes de cobro y pendientes de pago de presupuestos cerrados en el presupuesto del Ayuntamiento.

- Se traspasarán los saldos deudores y acreedores de los conceptos no presupuestarios existentes a la contabilidad del Ayuntamiento

- Los créditos y débitos existentes entre el Ayuntamiento y el Organismo Autónomo, se extinguirán por confusión, al coincidir en una misma persona la naturaleza de acreedor y deudor, con las anotaciones contables correspondientes.

- En relación con el remanente de tesorería que arroje la liquidación del Presupuesto del Organismo Autónomo extinguido, corresponderá al Ayuntamiento adoptar las medidas oportunas. Igualmente, se determinarán los saldos de los remanentes de créditos incorporables.

- En general, se procederá a la integración de la contabilidad del Organismo Autónomo en la del Ayuntamiento con efectos de 1 de enero de 2016 o, en su caso, la fecha efectiva de la disolución del Organismo Autónomo.

Noveno: Se traspasará la documentación del organismo que se integra al Archivo General del Ayuntamiento conforme pueda recepcionarse la misma previo trabajo de identificación, valoración, etiquetado, y en su caso expurgo.

Décimo: Entender subrogado al Ayuntamiento de Errenteria en la titularidad de los ficheros de datos que, hasta la fecha, estaban declarados en el Patronato Municipal de Deportes de Errenteria, realizando la comunicación oportuna a la Agencia Vasca de Protección de Datos (AVPD), a los efectos de que los titulares de los datos correspondientes pueden ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición ante el propio Ayuntamiento de Errenteria.



Hamaikagarrena: Desegindako erakundearen izaera juridikoa bere egiten duenez, eskubide eta betebeharrak guztiekin batera, izaera orokorreko eta arauzko xedapen guztiak eta horiek aplikatzeko egintzak integratuz jotzen dira; alkateak du horiek egokitzeko eskumena.

Hamabigarrena: Alkateari eskumena ematea egintza administratibo honetan aipatutakoaren inguruko egintza eta izapideak agintzeko.

Hamahirugarrena: Desegiteko erabakia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta jakinaraztea Udaleko departamentuei, Kiroletako Udal Patronatuari eta bertako langileei, jakinaren gainean egon daitezkeen.

Undécimo: Se consideran integradas, como sucesor de la personalidad jurídica que se extingue así como de todos los derechos y obligaciones, todas las disposiciones de carácter general y reglamentarias dictadas y sus actos de aplicación, facultando al Alcalde para su adaptación.

Duodécimo: Facultar al alcalde para dictar cuantos actos y trámites sean necesarios en relación con lo mencionado en el presente acto administrativo.

Decimotercero: Publicar el acuerdo de disolución en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y notificar a los diferentes departamentos municipales, al propio Patronato Municipal de Deportes y al personal del mismo para su conocimiento.

DEKRETUA.- Interesatuak aurreko erabaki honetan agintzen denaren berri emango zaie.

DECRETO.- Se dará cumplimiento a los interesados de cuanto ordena el acuerdo anterior.

Errenteria Udaleko Alkate-Lehendakariak agindu eta sinatzen du. Ziurtatzen dut.

Lo manda y firma el Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Errenteria. Certifico.

Errenterian, 2015eko azaroaren 9an

Alkate-Lehendakaria

Idazkari Nagusia
La Secretaria General

DILIGENTZIA.- Data honetan agindutakoa betetzen da, ziurtatzen dut.

DILIGENCIA.- Con esta fecha se cumple lo ordenado, certifico.

Idazkari Nagusia
La Secretaria General